

## 152. artikulua

1. Aurreko artikulua arabera onarturiko Estatutuetan, Autonomiadun Instituzio eraketa biltzar legegile batetan oinarrituko da, Biltzar hau bozketa orokor baten bidez aukeratua izango da, bertan proportzionalki lurralde osoko eskualde guztietako ordezkariak izanik; Administrazio eta Eragile boteredun Gobernu Kontseilu bat eta Biltzarrak aukeraturiko eta Erregeak izendaturiko lehendakari bat, Gobernu Kontseiluaren zuzendari bezala, Erkidegoaren Ordezkari Nagusia izango dena eta bertan Estatuaren ordezkari arrunta. Lehendakariak eta Gobernu kontseilukideek biltzarraren aurrean erantzukizun politikoa izango dute. Erkidego Autonomoetan tokiko auzi eraketaren gailurra goi mailako Justizia Auzitegi Nagusi bat izango da, Auzitegi Gorena delakoaren agintea errespetatuz. Erkidego Autonomoen Estatutuetan lurralde auzitegi eraketaren zatikatze baldintzak eta erak jar daitezke, Auzi Boterearen lege organikoak dioenarekin batera eta honen batasuna eta askatasunaren arabera. 123. artikuluan esandakoaz gain, auziaren prozesu maila desberdin guztiak, lehen mailan hasitako Erkidego Autonomoaren lurralde bereberko auzitegi erakundeetan amaituko dira.
2. Estatutuak behin izenpetu eta jakin arazi ondoren, bertan jartzen diren aldabideak jarraikiz bakarrik alda daitezke, eta Hauteskunde zerrendetan sarturik dauden bozemaileen artean Erreferenduma eginaz.
3. Mugakide diren Udalak elkartuz Estatutuak lurralde zatiketa bereziak sor ditzakete, nortasun juridikoa izanik.